

ESPAINIAKO MINBIZIAREN AURKAKO ELKARTEA: IKERKETA PROIEKTUEN 2018KO DEIALDIA

Xedea:

Deialdiaren helburu da orientazio traslazonal argiko minbiziaren inguruko kalitatezko ikerketa proiektuetarako finantza laguntzak ematea. Proiektu horiek ikertzaile nagusi batek gainbegiratuta garatuko dira eta oso osorik Espainian burutuko dira.

Proiektuen ezaugarriak:

- Proiektuek orientazio traslazonala eduki beharko dute, oinarritzko ikerketako oinarri sendo batekin. (oinarritzko onkologia, onkologia traslazonala eta azterketa aurreklinikoak barne hartuko dituzten azterketak).
- Ikerketa talde desberdinek elkarlanean jarduteko aukera ematen da.
- Proiektuek 3 urte iraungo dute.
- 300.000 euro gordinoko diru kopurua emango da, hots, urtean 100.000 euro gordin.

Ikertzaile nagusiaren (IN) betebeharrak:

- Doktore titulua edukitzea.
- Irabazi asmorik ez duen erakunde publiko edo pribatu bati lotua egotea.
- Azken bost urtetan lehenengo dezilaren barruan azken egileko 2 artikulua argitaratu izana.
- Taldeburua izatea bost urte baino gehiagotik

Bateraezintasunen araubidea:

- Laguntza hau AECC Zientzia Fundazioak emandako beste edozein laguntza jasotzearekin bateraezina da. Laguntza edo deialdirako aurkeztutako unean indarrean dagoen AECC elkartearen Probintzia Batzordeek ematen duten bat ez bada. (kontsultatu salbuespenak)
- Deialdi honetan proposamen bakarra aurkeztu ahal izango da. Hautagaitza aurreragoko deialdietarako ere aurkeztu ahal izango da, badin eta aurkeztutako proiektuan eta/edo ikertaldean aldaketak egin badira.

Proiektuari egozteko moduko gastuak: "Proiektuari egozteko moduko gastuak" dokumentua kontsultatu.

GARRANTZITSUA: Ez da egongo eskariak zuzentzeko aukerarik; hortaz, ezetsi egingo dira ondo bete gabe aurkezten diren edo baldintzak betetzen ez dituzten eskariak.

Eskabideak aurkezteko epea:

2017ko urtarrilaren 17a, 15:00etan

2017ko urtarrilaren 9a (hau barne)	I. Eranskina bidaltzea proposatutako pertsonalaren zerrendarekin. Eranskina convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera igorri beharko da, mezuaren gaiaren honakoa adieraziz: "LAB AECC".
2017ko urtarrilaren 12a (hau barne):	Proiektuaren memoria beteta bidaltzea, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak emaitzak hedatzeko eta jakinarazteko planaren c) atala bete dezan. Eranskina convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera igorri beharko da, mezuaren gaiaren honakoa adieraziz: "LAB AECC".
2017ko urtarrilaren 17a	ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEAREN AMAIERA.

Eskabideak aurkezteko modua:

Eskabideak AECC Zientzia Fundazioaren web plataformaren bidez
(<https://fundacioncientifica.aecc.es/login>) aurkeztu beharko dira

AECC Zientzia Fundazioko bitartekoa harremanetarako:

Tel.: 91 310 82 54

Helbide elektronikoa: fundacion.cientifica@aecc.es

UPV/EHUko bitartekoa harremanetarako:

Tel.: 94 601 80 08

Helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.es

Informazio gehiago:

<https://fundacioncientifica.aecc.es/tramites/TR0000000839>